



GAZTERIAREN EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA

Memoria ekonomiko hau Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 2/11 zirkularrean xedatuaren arabera da. Zehazki, II. eranskinaren edukari jarraitzen zaio, aurreproiektuak honako hauek sortzea aurreikusten baitu: Gazteriaren Euskal Sistema, Gazteentzako Zerbitzuen eta Ekipamenduen Erregistro Nagusia eta, Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen ordezt, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriako Sailarteko Batzordea eta Gazteriaren arloko Euskadiko Erakundearteko Koordinazio Organoa.

1.- AURREKARIEN DESKRIBAPENA ETA XEDAPENA BEHARREZKOA DELA ERAKUSTEN DUTEN ARRAZOI EKONOMIKOAK.

1.1.- Proposatutako araudia gaitzen duten aurrekontu juridikoak igortzea

Aurreproiektua gaitzen duen justifikazio moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutura jo behar da, 10.39 artikuluan “gazteen aldeko politika” onartzen baitu autonomia-erkidego honen eskumen eskusibo moduan.

1.2.- Proposatutako araudiaren ildo nagusiak azaltzen dituzten datuak, txostenak eta ikerketak igortzea

Aurreproiektua egiteko, kontuan hartu da Euskadiko gazteen egoeraren 2017ko diagnostikoa, Gazteen Euskal Behatokiak egindakoa. Azken hamarkadetako gizarte-aldaketa sakonek (hala nola, langabeziak, enplegu prekarioek edo soldata baxuek) nabarmen atzeratu dute gazteak emantzipatzeko eta etxebizitza independente batera sartzeko adina. Gainera, gazteen egoeraren ezaugarri nagusiak eraldatu dituzte bestelako faktoreek; adibidez, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eragindako aisialdi mota berriek, asteburuetak mugikortasunak eta dibertsio-ohiturek, bide tradizionalen bidezko parte-hartze sozial eskasak eta gune politikotik asko urrundu izanak. Hori dela-eta, gazteei buruzko lege baten bidez, euskal gazteen arazo nagusiei aurre egiteko moduko politika orokorrak (gazteei zuzendurikoak) planteatu nahi dira.

Beraz, egokia da gazteak emantzipatzea eta administrazio publikoan gazte-ikuspegia egotea sustatuko duen lege bat egitea. Lege horrek, era berean, euskal administrazio publikoek gazteen arloan dituzten eskumenak eta egitekoak erregulatuko ditu; gazteen inguruko zeharkako politikak koordinatu, planifikatu eta ebaluatuko ditu; gazteentzat espezifikoak diren programen, jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen bidez, gazteen egoera bultzatuko du eta, aldi berean, gazteek parte-hartzea sustatzen jarraituko du.

Nahi izanez gero, J0D0Z-T1ERM-YP4M bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den da eta, aldi berean, gazteek parte-hartzea sustatzen jarraituko du.

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1ERM-YP4M en la sede electrónica <http://euskadi.eus/locatortxt>. Donostia, San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



1.3.- Proposatutako araudiaren aurrekariak

Kontuan izan behar da ez dela hutsetik hasi lege-aurreproiektu hau egiten, eta aurreko bi proiektu egiteko lanaren zati bat jasotzen duela; izan ere, lehena 2008ko irailaren 23an onartu zuen Gobernu Kontseiluak, eta bigarrena, berriz, 2011ko urriaren 7an, baina ez zuten gainditu Legebiltzarreko tramitazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoak gazteria-arloko eskumen eskusiboa izan arren, oraingoz ez dago dagokion lege-mailako esparru juridikorik; horri buruz, soil-soilik esan daiteke Euskadiko Gazteriaren Kontseilua sortu zela maiatzaren 27ko 6/1986 Legearen bidez, eta gazteek EAEko Administrazioarekin dituzten kontuetarako mintzaide-eginkizuna aitortzen zaiola.

Hala ere, 1985etik, erregelamendu-mailako xedapen hauek sortu dira hizpide dugun gai-arloari dagokionez:

- 170/1985 Dekretua, ekainaren 25ekoa, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, kolonia irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen araubidea arautzen duena.
- Agindua, 1986ko urtarrilaren 15ekoa, Kultura eta Turismo Sailekoa. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-elkarteen eta gazteriari zerbitzuak ematen dizkioten erakundeen zentsua sortzen da.
- Uztailaren 8ko 162/1986 Dekretua, partzialki garatzekoa Euskadiko Gazteriaren Kontseilua sortu zuen maiatzaren 27ko 6/1986 Legea.
- 14/1988 Dekretua, otsailaren 2koa, Gazteen Informazio eta Dokumentaziorako Euskadiko Tegi Koordinatzailea sortzen duena.
- 211/1993 Dekretua, uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespenez ofiziala arautzen duena.
- 406/1994 Dekretua, urriaren 18koa, haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldiatarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa.
- 419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena.
- 260/1995 Dekretua, maiatzaren 2koa, Euskadiko “Gazte txartela-Carnet joven” eratu eta arautzeko dena.
- Agindua, 1997ko azaroaren 12koa, Kultura sailburuarena. Honen bidez urriaren 18ko 406/1994 Dekretua garatzen da, hau da, haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldiatarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa.
- 239/1999 Dekretua, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu, erregimen eta osaketari buruzkoa, urriaren 15eko 240/2002 Dekretuak moldatua.
- Agindua, 1999ko abenduaren 10ekoa, Kultura sailburuarena, Gazteriaren Euskal Behatokia sortu eta horren eginkizunak zehazteko.
- Agindua, 2016ko urriaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak eta haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak izendapen

ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautu zuen Dekretuaren I. eta II. eranskinak eguneratzekoa.

1.4.- Ikuspegi ekonomikotik beharrezkoa dela erakusten duten arrazoiak

Gazteriaren Euskal Legearen beharraren justifikazioak, ikuspuntu ekonomikotik, oinarri du bai Eusko Jaurlaritza bai foru-aldundiak, erregelamenduzko dekretuen bidez, lege-mailako lege-esparrurik gabe betetzen ari direla eginkizunak orain arte. Gainera, toki-erakundeei, beren gogoz, gazteentzako administrazio-zerbitzuak edo -unitateak sortu dituzte azken urteotan, bai eta *a priori* EAEko gazteentzat oinarritzat jo daitezkeen zerbitzuak eta ekipamenduak ere, 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, onartu aurretik.

Hortaz, Gazteriaren Euskal Legea egin da administrazio publikoen eskumenak eta funtzioak artikulatu behar zirelako, gazteriaren politika integrala bultzatzeko. Politika horretara ondokoak batzen dira: batetik, gazteriaren autonomiaren, emantzipazioaren eta integrazioaren aldeko neurriak, gazteriarentzako zehar politikak planifikatu, betearazi eta ebaluatzearen bidez; eta bestetik, gazteen sustapena, gazteentzako jarduera, zerbitzu eta ekipamendu espezifikoaren bidez. Hori guztia egiten da gazteen parte-hartzea sustatzen duten prozesuen eta bitartekoen bidez eta xedea da gazteek eskubideak eta askatasunak egikaritzea babestu eta erraztea.

1.5.- Beste araugintza-ekimen batzuen gaineko eragin ekonomikoa

Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuak ez dauka eragin ekonomikorik, zuzenean behintzat, beste araugintza-ekimen batzuetan; beraz, ezin da arauen arteko aldean azterketarik egin.

2.- XEDAPENA INDARREAN JARTZEAK ERAGINGO DITUEN AURREKONTU-GASTU ETA -SARRERAK KUANTIFIKATZEA

Ez dago aurreikusita hurrengo Gazteriaren Euskal Legea indarrean jartzeak aurrekontu-gastuak edo -sarrerak sortzea, baina zenbait erregelamenduzko garapen aurreikusten dira, eta, hala egokituz gero, izango duten eragin ekonomikoa aztertuko da.

3.- AURREKONTU-GASTUEN ETA AURREKONTUTIK EZ DATOZEN GASTUEN FINANTZAKETA

Ez dago aurreikusita hurrengo Gazteriaren Euskal Legea indarrean jartzeak aurrekontu-gastuak edo aurrekontutik ez datozen gastuak sortzea.

4.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OGASUN NAGUSIAREN GAI-ARLOETAN ERAGINA DUTEN XEDAPENAREN ALDERDIAK ZEHAZTEA

Ez dago aurreikusita hurrengo Gazteriaren Euskal Legeak eragin zuzena izatea EAEko Ogasun Nagusiaren gai-arloetan.

5.- PROPOSATUTAKO XEDAPENA TXERTATUTA DAGOEN AURREKONTU-ETA EKONOMIA-PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

5.1.- Araua justifikatzen duen aurrekontu-memoriaren eta sartuta dagoen aurrekontu-programaren deskribapen laburra

Araua Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren “Gazteria 3222” aurrekontu-programan txertatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoaren oraingo ekitaldirako aurrekontu orokorren barruan.

5.2.- Araua indarrean jartzeak eragindako helburuak, ekintzak eta adierazleak zein diren zehaztea, eta berorietan aldaketarik dagoen adieraztea

Autonomia Erkidegoak ekitaldi honetarako dauzkan aurrekontu orokorren memorian jaso bezala, gazteentzako politika integralaren lehen helburu nagusia gazteen emantzipazio-prozesua errazteko politika zeharkakoa sustatzea da, eta berariaz adierazten da “Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektua egiten jarraituko dela”, arreta zeharkakoa eta EAEko gazteentzako politika espezifikoak antolatu eta bultzatu ahal izateko lege-esparrua izan dadin.

Horretarako, “Gazteriaren Legea egiteko parte-hartze prozesuari lotutako ekitaldien antolaketa” helburu duen kontu-sail bat gehitzen da.

5.3.- Aplikazioaren ebaluazio ekonomikoa eta soziala

Etorkizuneko Gazteriaren Euskal Legearen aplikazioak eragin ekonomiko zuzenik ez duela izango aurreikusten da. Baldin badu, ondorengo erregelamenduzko garapenaren ondorio izango da.

6.- LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Xedapena ez da eman diru-laguntza programen edo diru-laguntzen deialdien garapenean.

7.- XEDAPENAREN BIDEZ ERAKUNDEA EDO ORGANOA SORTU, KENDU, ALDATU EDO BERREGITURATZEKO BEHARRIZANAREN EDO EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

Gauzatuko dituen ekonomia- eta aurrekontu-programak eta sartzen den ekonomia- eta aurrekontu-programak betetzeari dagokionez, esan daiteke ez dagoela aurreikusita. Hala ere, hurrengo Gazteriaren Euskal Legea promulgatzeak hasieran berehalako gasturik izango ez badu ere, konpromiso berriak pixkanaka hartzea aurreikusten da, batzuetan erregelamenduzko garapen bidez, ondoren azaltzen diren eginkizunei aurre egiteko:

Koordinazio-lanak

Lege-aurreproiektuan **Gazteriaren arloko Euskadiko Erakundearteko Koordinazio Organoa** sortzea aurreikusten da, EAEko administrazio publikoek gazte-politika integrala sustatzeko; hau da, gazteria-arloko politika zeharkakoak eta gazteak sustatzeko politikak, gazteek parte hartzeko bideak barne. Era berean, **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriako Sailarteko Batzordea** sortzea aurreikusten da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailen gazteria-arloko jarduketaren garapena eta aplikazio eraginkorra bermatzeko koordinazio-organoa izan dadin, jarduketak bultzatzen dituen organoa izateaz gain.

Bi organoak EAEko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen ordezkari sortzen dira, eta, horrenbestez, hizpide dugun lege-aurreproiektua berariaz jasota dagoen bezala, indarririk gabe geratzen da 239/1999 Dekretua, ekainaren 2koa, EAEko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu, erregimen eta osaketari buruzkoa, urriaren 15eko 240/2002 Dekretuak moldatua.

Hortaz, Zuzendaritza Batzordea birmoldatzeak ez dakar berekin inolako aurrekontu-aldaketarik, eginkizunak ez ezik, bi organo berrietako kideak ere EAEko administrazio publikoetako kargudunak direlako, gonbita daitezkeen pertsonak izan ezik, berorien gastuak, hala egokituz gero, gastu arrunt moduan ordainduko baitira.

Gazteentzako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak

Administrazio publikoek gazteak sustatzeko programa, jarduera, zerbitzu eta ekipamendu espezifikoak garatzeko kontuan hartuko dituen neurriak arautzen ditu lege-aurreproiektuak. Gazte-sustapenaz ulertzen berariaz haurrentzat eta gazteentzat diren jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskaintzea, berorien garapen soziala eta kulturala bultzatzeko, banan-banan bezala talde moduan ere, batez ere honako hauek sustatuz: ekimena eta sormena; mugikortasuna; informazioa, aholkularitza eta hezkuntza ez-formala izateko aukera; aisialdi parte-hartzailea; eta ondasunetarako eta zerbitzuetarako sarbidea. Horretarako, **Gazteriaren Euskal Sistema** sortzen da, erantzukizun publikoko eta gizarte-partaidetzako egituren eta jarduketaren multzo antolatu eta egonkorra izan dadin, zeharkako esku-hartzez eta gazteentzako jarduera, zerbitzu eta ekipamendu espezifikoak osatua.

Berariaz gazteentzat diren zerbitzuak honako hauek dira: aisialdiko zerbitzuak; prestakuntza-, sustapen- eta orientazio-zerbitzuak; informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak; eta berariaz gazteei zuzenduta dagoen beste edozein ere. Gazte-ekipamendua gazteei jarduerak edo zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren azpiegiturez eta baliabidez horniturik dagoen espazioa da. Programen, zerbitzuen eta ekipamenduen multzotik Gazteriaren Euskal

Sistemaren arloak sortzen dira, eta berorien eskaintza Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzuen katalogoan zehaztuko da.

Hortaz, lege-aurreproiektuak ez du inolako jarduera, zerbitzu edo ekipamendu berririk aurreikusten; aitzitik, daudenak sistematizatu eta egituratu egiten dira, toki- eta lurralde-esparruan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan ere, Gazteriaren Euskal Sistema osatzen duten arloen bidez.

Gainera, **gazteentzako zerbitzuen erregistro nagusia** sortzen da, zeinaren ardura Gazteriako Zuzendaritzako langileena izango baita, gazte-elkarteen eta gazteriari zerbitzuak ematen dizkieten erakundeen zentsuarekin (Agindua, 1986ko urtarrilaren 15ekoa, Kultura eta Turismo Sailekoa. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-elkarteen eta gazteriari zerbitzuak ematen dizkieten erakundeen zentsua sortzen da) gertatzen den bezala.

Ikuskapena

Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuaren zirriborroan dagokion zehapen-araubidea jasotzen da, EAEko administrazio publikoen ikuskaritza-ahalmena bilduta, bai eta arau-hausteen tipologia, zehapenen aplikazioa eta erregistroa ere.

Lehen esan bezala jarduera, zerbitzu edo ekipamendu berririk sortzen ez denez, batez ere gazteria-arloko foru-organo egokiek honako dekretu hauen bidez araututa dauden gaietan gauzatutako ikuskaritza-ibilbidea dago zehapen-prozedura hori aurrera eramateko:

170/1985 Dekretua, ekainaren 25ekoa, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, kolonia irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen araubidea arautzen duena.

- 211/1993 Dekretua, uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespren ofiziala arautzen duena.

- 406/1994 Dekretua, urriaren 18koa, haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldietarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa.

- 419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena.

8.- ERABILITAKO GIZA BALIABIDEEN ETA ERAGINDAKO BALIABIDE MATERIALEN AURREIKUSPENA

8.1.- Eragindako plazen, plaza horiei dagozkien ordainsarien eta langileria-kostuen deskribapena.

Ez da aurreikusi.

8.2.- Eragindako gastu arrunteko baliabide materialen deskribapena.

Ez da aurreikusi.

8.3.- Eragindako kapital-gastuko baliabide materialen deskribapena

Ez da aurreikusi.

9.- FUNTZIONAMENDU-KOSTUAREN ETA ZERBITZUEN ERRENDIMENDUAREN ETA BALIAGARRITASUNAREN AZTERLAN EKONOMIKOA

9.1.- Erakundea edo organoa funtzionatzen hasteak, ezabatzeak, berregituratzeak edo aldatzeak duen kostu/aurrezpenaren azterlana

Legea onartzeak ez dakar berekin inolako berehalako gasturik.

9.2.- Eragindako zerbitzuen errendimenduaren edo baliagarritasunaren azterketa

Ez da aurreikusten hasierako inolako aldaketarik, eragindako zerbitzuen egungo errendimendua edo baliagarritasuna aldatuko duenik.

10.- APLIKAZIOAK BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN ERAGIN DEZAKEEN KOSTUAREN EBALUAZIOA

10.1.- EAEko foru-administrazioetan

Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuaren zirriborroan, 8. artikuluan berariaz bildutako eginkizunak esleitzen zaizkie foru-administrazioei.

Bestalde, Gazteriaren Euskal Sistemaren arlo hauek zehazten dira:

1.- Eskaintza zuzena:

- a) Informazioa, dokumentazioa, orientazioa eta lagun-egitea.
- b) Aisialdi hezigarria eta hezkuntza ez-formala.
- c) Adierazpenerako eta parte hartzeko bideak.
- d) Sortzeko eta ekoizteko laguntzea.
- e) Gazte-enplegurako laguntza.
- f) Mugikortasuna, bizitokia eta etxebizitza-bilaketa.

2.- Laguntza-zerbitzuak:

- a) Gazte-politika sustatzea eta koordinatzea.

- b) Ikasketak eta dokumentazioa.
- c) Gazteekin profesionalki zein ez lan egiten duten pertsonak, gazteriarekin zerikusia duten ardura politikoak dituztenak eta gazte-elkarteetako kideak prestatzea.
- d) Aholkularitza eta kontsultoretza, aholkularitzako senior-boluntariotza barne.
- e) Baliabideen transferentzia.

Eginkizun horiek guztiak kasuan kasuko foru-organismoek bete dituzte azken urteetan, erakunde erkideen legeak beren lurraldean betearazteko eskumena baitute; zehazki, adierazi bezala: 211/1993 Dekretua, uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespren ofiziala arautzen duena; 406/1994 Dekretua, urriaren 18koa, haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldietarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa; 419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena; eta 170/1985 Dekretua, ekainaren 25ekoa, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, kolonia irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen araubidea arautzen duena.

Bestalde, honako hau xedatzen da: “Lege honetan jasotako parte-hartze prozesuak bideratzeko behar diren baliabideak izango dituzte toki-, foru- eta autonomia-administrazioek”. Horri dagokionez, urtero, foru-aldundi bakoitza EGK-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren jarduketak diruz laguntzen ari da zein bere lurraldean, hitzarmen bidez batzuetan, lurraldez gaindikoak ez diren gazte-elkarteen jarduerak diruz laguntzeaz gain.

Azkenik, esan behar da zehapen-ahalmena, Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuaren zirriborroan jasotako arau-hausteez eta zehapenez den bezainbatean, Gazteriaren Euskal Sistemaren arloei dagokiela, eta edukia araututa dagoela lehen aipatutako dekretuetan. Dekretu horietan, betearazpena, ikuskapena barne, jada foru-aldundiei esleitzen zaie.

10.2.- EAEko toki-administrazioetan

Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuaren zirriborroan, toki-administrazioei egokitzen zaizkie 9. artikuluan berariaz jasotako eginkizunak, bat etorrita Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean xedatuarekin, 17. artikuluko 36. zenbakian esaten baitu udalen eskumena dela gazte-politikak planifikatu, antolatu eta kudeatzea.

Lehenago adierazi bezala, toki-erakundeek, beren gogoz, gazteentzako administrazio-zerbitzuak edo -unitateak sortu dituzte azken urteotan, bai eta *a priori* EAEko gazteentzat oinarritzotzat jo daitezkeen zerbitzuak eta ekipamenduak ere, 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, onartu aurretik.

Era berean, lehenago adierazi da lege-aurreproiektuak ez duela inolako jarduera, zerbitzu edo ekipamendu berririk aurreikusten; aitzitik, daudenak sistematizatu eta egituratu egiten dira, toki- eta lurralde-esparruan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan ere Gazteriaren Euskal Sistema osatzen duten arloen bidez.

Azkenik, kontuan hartu behar da, halaber, toki-esparrurako Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuaren zirriborroan aitortzen dela EAEko administrazio publiko bakoitzaren ikuskatze-ahalmena, eta ahalmen hori erregelamendu bidez garatuko diren eginkizunen arabera erabiliko dela. Horregatik, garapen hori egitean, hala egokituz gero, azertu egingo da

zer eragin ekonomiko duen ikuskatze-jarduerak toki-erakundeetan, ahaztu gabe garatze horretan eragindako erakundeekin kontsulta- eta entzunaldi-fase egokia egin beharko dela.

10.3.- Estatuko administrazioan

Ez du eraginik.

11.- APLIKAZIOAK PARTIKULARRENTZAT IZAN DEZAKEEN KOSTUAREN EBALUAZIOA

11.1.- Eragindako sektoreak

Etorkizuneko Gazteriaren Euskal Legearen aplikazioak eragin ekonomiko zuzenik ez duela izango aurreikusten da. Baldin badu, Gazteriaren Euskal Sistema taxutuz doan moduaren ondorio izango da, geroago erregelamendu bidez garatuko baita.

11.2.- Herritarrak oro har

Etorkizuneko Gazteriaren Euskal Legearen aplikazioak eragin ekonomiko zuzenik ez duela izango aurreikusten da.

12.- LEGEA APLIKATZEAK EKONOMIA OROKORREAN ERAGIN DEZAKEEN KOSTUAREN EBALUAZIOA

Etorkizuneko Gazteriaren Euskal Legearen aplikazioak berehalako eragin ekonomiko zuzenik ez duela izango aurreikusten da. Baldin badu, ondorengo erregelamenduzko garapenaren ondorio izango da.

Vitoria-Gasteiz,

Ander Añibarro Maestre
GAZTERIAKO ZUZENDARIA
(Elektronikoki sinatua)

O.E.

Marcos Muro Nájera
ENPLEGU ETA GAZTERIAKO SAILBURUORDEA
(Elektronikoki sinatua)